SATSE

ESTILO LIBURUA

ERIZAINTZA, GAUR

Erizaintza Sindikatua
www.satse.es

Erizaintza hobeto ulertzeko eta
ezagutzeko gidaliburua.

AURKIBIDEA

AURKEZPENA 04

HITZAURREA 08

ERIZAINTZA ESPAINIAKO ESTATUAN 10
Galderak eta erantzunak

ZER EGITEN DUGU PERTSONEN ALDE? 20
Eredu praktikoak

ERIZAINTZAREN GAKOAK 22

ERIZAINTZAREN ESTEREOTIPOAK ETA ERREALITATEAK 24

ERIZAINTZA ETA KOMUNIKABIDEAK 26

HIZTEGI PRAKTIKOA 28
Erizainen benetako irudia

SATSE, ERIZAINTZA SINDIKATUA 31

AURKEZPENA

Zenbat denbora behar da komunitate batean tinko errotuta dagoen ideia bat aldatzeko? Zenbat denbora behar da lanbide bati buruz gizarteak duen irudia aldatzeko?

Ulertzeko zaila den arren, zenbait uste okerrek denboraz irauten dute, zuzenduak eta kontrastatuak izan gabe. **Erizainok urteak daramatzagu topikoen aurka borrokatzen.** Hala ere, etengabe topatzen gara gu garen bezalakoak islatzeko interes faltarekin.

Badakigu komunikabideek eta horietan lan egiten duzuen profesionalek helburu duzuela **transmititzen duzuen informazio guztia egiazkoa, zehatza eta kontrastatua** izan dadin. Hori dela-eta, estilo liburu bat diseinatu dugu, Erizaintza eta erizainok egiten dugun lana ondo ezagutzeko.

Estatuan **300.000 pertsona baino gehiago gara** Erizaintza ikastea erabaki eta egun aktiboki horretan jarduten dugunak. Egunero arlo eta toki ezberdinetan egiten dugu lan, beti herritarren osasuna zein bizitza kalitatea mantendu eta hobetzeko helburuarekin, pertsona bakoitzaren bizitzako momentu orotan, jaiotzetik, heriotzera arte.

Jakin nahi duzu erizainak nortzuk garen eta zer egiten dugun? Altxatu burua eta begiratu zure ingurura. Ia leku guztietan egoten baita erizain bat lanean zure bizitzako momentu latzenetan.

Osasun Zentroetan egiten dugun lana da ezagunena, baina zure seme-alaben eskolan ere bagaude, unibertsitatean, fabrikan, bulegoan zein itsasoan dagoen petrolio plataforma batean. Jolas parkeetan ere bai, igerilekuetan eta kirol zentroetan, merkataritza-guneetan, zaintza behar duten eta mugitu ezin diren pertsonen etxeetan, atzeraezinak diren prozesuetan dauden pertsonak zaintzen eta doluan zehar, euren senideekin. Udaletxeetan, pazienteen elkarteetan, errehabilitazio zentroetan, adinekoen edota gaixotasun kronikoak dituzten pertsonen erresidentzietan... **Laburbilduz, zaintza behar duen edonor dagoen lekuan**.

Horrez gain, urteak dira **ikerketa eta ebidentzia zientifikoa** ere gure lanaren parte direla. Etengabe ari gara emaitzak ebaluatzen eta zainketa lanak berritzen.

Hala ere, egunerokotasunean norbanakoek egiten diguten aitortza jaso eta gure diziplinan aurrerapenak egiten baditugu ere, hedabideetan ez gara protagonistak izaten gure lan eremuan lortutako aurrerapenengatik.

Zaintzari dagokionez, paradoxa da lan horietako gehienak "zaintza ikusezinen" kategorian sartzen direla. Ikusezintasun hori nabarmenagoa da gure lana zenbat eta hobeto egin, eta bere falta dagoenean baino ez da detektatzen. Dena dela, lanean egiten dugunaren zati handi bat ageria ez den arren, kolektibo gisa ez dugu zertan ikusezinak izan behar gizartearentzat. Eta, batez ere, **gure eta gure lanbidearen inguruan ezagutarazi nahi**

duguna errealitatetik gertuen dagoena izan dadin nahi dugu.

Horretarako, gure izenetik hasiko gara, erraza badirudi ere, askotan nahasteak eragiten baititu oraindik ere. Izan ere, **izena ondo ez menperatzeak, uste okerrak sor ditzake profesionalen egitekoen inguruan**.

Osasun Laguntzaile Tekniko (OLT) titulua hogei urte inguru egon zen indarrean Espainiako Estatuan, 1952tik 1977ra arte. Izendapen hori ez da inoiz existitu munduko gainontzeko herrialdeetan, horietan, erizain izena mantendu da beti. OLT akronimopean, emaginen, praktikanteen eta erizainen ikasketa planak bateratzea lortu zuten, eta, era berean, **mendekotasuna, paternalismoa eta dependentzia** ezaugarriak (garai hartako ezaugarriak), lanbideari betirako lotuta geratzea ere bai.

Urte asko igaro dira OLTen azken promozioa atera zenetik. Gehienek, konbalidazio ikastaro bat gainditu zuten ondoren, unibertsitate titulu bat eskuratzeko eta euren jakintzak hobetzeko. Titulu horrek **inoiz ere desagertu behar ez zen izendapen bat bueltatu zien: erizaina**.

Galdera ondorengoa da: nola da posible, hain urte gutxi iraun zuen izendapen bat, zaharkitua eta inor ere identifikatuta sentitzen ez dena, oraindik ere hainbat komunikabidetan, bai paperezkoetan zein ikus-entzunezkoetan, erabiltzen jarraitzea?

Ez da izen kontua soilik, garrantzitsuagoa iruditzen zaigun beste kontu bat baizik: hedabideek gure lanbidearen inguruan zabaltzen duten **irudiak, zehaztu gabea eta topikoz eta estereotipo zaharkituz josia** izaten jarraitzen du.

Horregatik guztiagatik, minutu batzuk eskatzen dizkizuegu dokumentu hau irakurtzeko. Bertan, **erizainok nor garen eta zer egiten dugun azaltzen dugu**, zalantza asko argituz. Edozein galdera izanez gero, gu prest gaude erantzuteko eta baita zuekin elkarlanean aritzeko ere, erizaintzaren benetako irudia eta gizarteak duen pertzepzioaren arteko distantzia hori laburtzeko xedearekin. Zuen kolaborazioa eskatzen dizuegu egiteko horretan.

Zuen zain gaude.

HITZAURREA

Erizaintzako profesionalak Estatuko osasun kolektibo jendetsuena gara.

Lau urteko unibertsitate ikasketak egin ondoren, 280.000 erizain inguruk lan mundura egiten dute salto. Bertan, egungo eta etorkizuneko Osasun Sistema mantentzeko ezinbestekoa den lana eginez, herritarren ongizatea bermatzeko osasun ekarpena, ekarpen ekonomikoa eta ekarpen soziala gauzatzen dute.

Azken 35 urteotan, formazio eta gaitasun mailan gehien garatu den osasun arloko lanbideetako bat da erizaintza. Egun, Osasun Sisteman zaintza lanetan liderra da guztiz modu autonomoan.

Era berean, osasun baliabideen kudeaketan egiteko garrantzitsua du erizaintzak eta ikerketa arloan eta osasunari lotutako zainketaren berrikuntzan ere, gero eta paper aipagarriagoa duela esan dezakegu.

Zoritxarrez, Osasun Sisteman egiten dituzten lanek garrantzi handia duten arren, erizainek ez dute merezitako aitortza soziala jasotzen.

Osasungintzako oinarrizko figura bat da, ezinbestekoa, baina oraindik bere errealitatea ez da ondo ezagutzen. Bere funtzioak ez daude argi gizartearen zati handi batentzat.

Bestalde, paradoxa da herrialde askok bertoko erizainen formazioa eta gaitasunak baloratzea. Horren adierazle da azken urteotan eskaria etengabe handituz joan dela.

Gizarteak duen erizaintzaren irudia okerra da. Oraindik ere, erizaina medikuen aginduen menpe dagoen profesionala dela uste dute askok, irizpide propio gabe laguntzaileen zereginak egiten dituena. Askotan, gainera, lanbidearen izendapena ere ezegokia, zehaztu gabea edota zaharkitua izaten da.

Egoera honen aurrean, eta komunikabideek iritzi publikoarengana iristeko duten gaitasuna kontuan hartuz, SATSE Erizaintza Sindikatutik euren kolaborazioa eskatu nahi dugu, Erizaintza eta honek osasunean egiten duen ekarpena ezagutuak, justuki baloratuak eta aitortuak izan daitezen.

Modu argi eta errazean, gidaliburuak, informatzea, orientatzea eta hedabideetako profesionalei baliabidez hornitzea du xede. Baita Erizaintzari buruz publikoki hitz egiten duten elkarte, kolektibo zein erakundeentzat ere, lanbidearen inguruan modu zehatz eta egokian aritu daitezen.

Laburbilduz, euren kolaborazioa eskatzen du, guztion artean, estereotipo, ideia eta kontzeptu ezegokiak alde batera utzi eta Erizaintzaren gaur egungo irudi erreala transmititzeko. Erreferentziazko profesionalen kontaktuak emateko prest gaude, Erizaintzarekin lotuta dauden gaien inguruko zalantzak argitze aldera.

Guztion artean lortuko dugu gizarteak erizainak benetan ezagutzea. Eurengandik hurbilen dauden profesionalak baitira.

Manuel Cascos
Presidentea

ERIZAINTZA ESPAINIAKO ESTATUAN

Galderak eta erantzunak



Nortzuk gara?

Herritarren osasunaren erantzule zuzenak diren osasungintzako profesionalak gara. Jaiotzan, bizitzan zehar eta heriotzean laguntzen diegu, edozein egoeratan daudela eta euren baloreak errespetatuz.

Ezaugarri nagusiak

- Pertsonaren ikuspegi integrala dugu. Egiten ditugun balorazio, ebaluazio eta diagnostikoek, eta baita planifikatzen ditugun zainketa lanek, pertsona izaten dute kontuan, ikuspuntu biologiko, psikologiko, emozional eta sozial batetik.

- Erizainok gaixotasun eta lesioen prebentzioan egiten dugu lan, ohitura osasungarriak sustatzen ditugu osasuna mantentzeko. Baldintza ezberdinak tarteko, osasuna egoera kaskarragoan dagoenean, tratamenduan eta sendatze prozesuan lan garrantzitsua egiten dugu.

- Erizaintza diziplina zientifikoa da, ezagutza propioak dituena, eta profesionalek egiten dituzten ikerketa proiektuen bidez praktika garatuz eta hobetuz doa.

- Erizainok modu autonomo eta independentean egiten dugu lan eta baita beste profesional batzuekin elkarlanean ere, eremu amankomunean eta helburu partekatua lortzeko.

Pasa den mendera arte, gure lanbidea kualifikazio gutxikoa zela uste zuen gizarteak, soilik emakumeentzakoa eta erlijio kutsuduna eta osasun arloko beste profesional batzuen menpekotzat hartzen zen. Gure funtzioa etxeko zeregin parasanitarioak modu diziplinatuan egitea zela.

Era berean, hainbat izendapen jasotzen zituen: praktikanteak, OLTak edota erizainak.

Erizaintza diziplina zientifikoa da, ezagutza propioak dituena, eta profesionalek egiten dituzten ikerketa proiektuen bidez praktika garatuz eta hobetuz doa

Ordutik gaur egunera arte, Erizaintzak garapen prozesu konplexua bizi izan du, “zeregina izatetik lanbidea izatera” igaro da.

Gure historia

1857

Praktikante titulu ofizialaren ezarpena. Hori izan zen Erizaintzaren legezko lehen erreferentea Espainian.

1896

Espainiako lehen Erizaintza Eskola sortu zen: "Real Escuela de Enfermeras de Santa Isabel de Hungría".

1915

Erizain titulua sortu zen Espainian.

1953

OLT (Osasun Laguntzaile Teknikoa) sortu zen, praktikante, erizain eta emaginaren profilak batzeko (hiru urteko prestakuntza espezifikoa oinarrizko batxilergoa gainditu ostean).

1977

Erizaintzako ikasketek unibertsitate maila hartzen dute, diplomatura bezala (hiru urteko prestakuntza espezifikoa goi mailako batxilergoa eta unibertsitaterako sarbideko proba gainditu ostean).

XIX. mendearen erdialdera arte, Erizaintzak ez zuen aitortutako irudi profesionalik. Ordura arte, gizartean gero eta garrantzi handiagoa zuten zainketak, komunitate erlijiosoek eta, batez ere, emakumeek egiten zituzten (inudeak, sortzainak edo emaginak eta sendatzaileak).

2005

1987an, emaitzarik gabeko erregulazio baten ondoren, Erizaintzaren espezialitateak berriro arautu ziren. Ondorengoak izan ziren: Erizaintza Obstetriko-Ginekologikoa (Emagina), Osasun Mentaleko Erizaina, Erizaintza Geriatrikoa, Laneko Erizaintza, Zainketa Mediko-Kirugikoetako Erizaintza, Familia eta Komunitateko Erizaintza eta Erizaintza Pediatrikoa.

2007

Unibertsitate ikasketak berrantolatu ziren Europako Goi Mailako Heziketa Eremura egokitzeko eta Erizaintzaren prestakuntza erabat garatu zen Espainiako Estatuan. Titulu berriak Graduak ziren (4 urteko prestakuntza).

2011

Doktoretza ikasketak arautzen dituen Errege Dekretua onartu zen. Horri esker, erizainek Doktore Titulua lor zezaketen, Estatu osoan izaera ofiziala izango zuena.



2015

Goi Mailako Prestakuntzaren Espainiako Kualifikazio Markoaren (*MECES*) 2. mailarekin bateragarri egin zen Erizaintzako Diplomatura, alegia, Erizaintzako Graduak duen maila berdinarekin.

Gure funtzioak

Gaur egun, erizainen egiteko ezagunena pertsona gaixoen arreta dela dago zabalduen gizartean. Ospitaleetan eta Lehen Mailako Arretan baino ez direla aritzen, gainontzeko egiteko eta zainketa motak ia ezezagunak diren artean.

Baina errealitatea ez da hori soilik, Erizaintzako profesionalok, kualifikazio teknikoa izateaz gain, beste hainbat funtzio ere betetzen ditugu.

Asistentzia

Erizainok pertsona bakoitzaren osasuna mantentzeko eta hobetzeko egiten dugu lan. Horretarako, ezinbestekoak diren ohitura osasungarriak sustatzen ditugu eta osasunerako heziketan egiten dugu lan, bai osasuntsu dauden pertsonekin zein gaixotasun bat pairatzen dutenekin ere, euren bizitzako edozein unetan.

Gure lanbidearen alde ezagunena gaixoen zainketari dago lotuta: ospitaleetan, osasun zentroetan, larrialdi zerbitzuetan zein erresidentzia soziosanitarioetan, gaixoari zuzeneko atentzioa emateaz arduratzen gara.

Egiten dugun lanak garrantzi handia du, izan ere, ikerketek adierazten dute, erizain gehiago egoteak harreman zuzena duela osasun zentroetako heriotza-tasa jaistearekin. Hala ere, Estatuan, erizain lanpostu kopuruak oso urria izaten jarraitzen du.

Kudeaketa

Unibertsitatean izaten ditugun ikasgaien artean, osasun erakundeak osatzen dituzten giza baliabideak zein baliabide materialak kudeatzen eta administratzen ere ikasten dugu.

Hartara, erizainok gure karrera hasieratik jakiten dugu lan egiteko modu eraginkor eta efikazenak zeintzuk diren, kalitate estandarrak altu mantentzen jarraitzeko.

Jaso dugun formazio eta ikasketa maila kontuan hartuz, gai gara osasun erakunde eta instituzioak zuzentzeko eta kudeatzeko. Hori zehazten du Lanbide Sanitarioen Antolamenduaren Legeak.

Hortaz, osasungintza politikak planifikatu eta gauzatzeko, ezinbestekoa da gure iritziak kontuan hartzea.



Ikerkuntza

Erizainok ikerketa lan eta proiektuak garatzen ditugu Erizaintza diziplinaren arloan, metodologia zientifikoan oinarritutako ezagutza berriak sortuz. Ikerketa arlo hau pertsonen osasunaren promozioari eta kontserbazioari dago zuzenduta.

Erizaintzako ikerketek, praktika asistentzialaren garapena frogatzen dute eta autonomia profesionala eta erizainen rol independentea sustatzen dute.

Egindako lan eta aurrerapenen ondorioak, zientzia elkarteen, kongresuen, zein aldizkari zientifikoen bidez hedatzen ditugu.

Irakaskuntza

Unibertsitatean ere presentzia handia dugu erizainok. Irakaskuntza arloan gaude Erizaintza fakultateen bidez, etorkizuneko gradudunei formazioa emanez, ikastaroetan, masterretan...

Unibertsitatean jasotzen dugun formakuntzan, ordu asko ematen ditugu hezkuntza metodologian trebatuz. Hala, komunikatzeko modu egokia bermatzen da, zaintzen ditugun pertsonen eta formazio prozesuan dauden beste profesionalen ikasketa erraztu eta sustatzeko.

Hezkuntza metodologian prestakuntza ezinbestekoa da, izan ere, gure egitekoetako bat gizarteari eta kolektibo zehatz batzuei (haurrak, adinekoak, gaixotasun kronikoak dituzten pertsonak, zaurgarriak diren kolektiboak...) heziketatik zuzentzea baita.

Non egiten dugu lan?

Erizainok ospitaleetan eta osasun zentroetan aritzeaz gain, esparru ugaritan egiten dugu lan, horietan betetzen ditugun funtzioak oso ezagunak ez diren arren.

▶ **Zentro soziosanitarioetan**
Adinekoen zentroak, bitarteko egonaldi eta egonaldi luzeetarako zentroak, zainketa aringarrietako unitateak, eguneko zentroak...

▼ **Ikastetxeetan**

▲ **Etxeetan**

▲ **Larrialdi zerbitzuetan**



▲ **Indar armatu eta polizialetan.**

Garapenerako lankidetza, hirugarren sektoreko erakunde solidarioak eta pazienteen elkarteak

Merkataritza eta kirol zentroetan

Enpresa, erakunde publiko eta pribatuetako osasun arloko prebentzio eta zaintza zerbitzuetan



Erakunde publikoetako ikuskaritza zerbitzuetan

Espetxeetan

Nola egiten dugu lan?

Erizainok modu autonomoan eta arduratsuan egiten dugu lan. Gainerako osasun profesionalekin elkarlanean aritzen gara, pertsonen osasuna mantendu, hobetu eta berreskuratzeko helburuarekin.



Espainiako Estatuan Erizaintza titulua duten pertsona asko daude. Hala ere, pertsona bakoitzeko erizain gutxien duen herrialdeen artean dago Europa mailan.

Ekonomiako Lankidetza eta Garapenerako Erakundearen (ELGE) azken datuen arabera, **Espainiako Estatuak 5,3 erizain ditu 1.000 biztanleko**. ELGEko herrialdeen batezbestekoa, aldiz, 9 profesionaletik gorakoa da 1.000 biztanleko.

Zer nahi dugu?

Osasun arreta ereduan berehalako aldaketa bat eman beharra dagoela uste dugu erizainok.

Estatuan, azken urteotan, aldaketa handiak egon dira arlo soziodemografikoan eta morbimortalitatean (populazioaren zahartzea, kronikotasunak haztea eta patologia anitzeko pertsona eta desgaitu gehiago egotea...), eta gure iritziz, aldaketa bat ezinbestekoa da.

Erizainok uste dugu beharrezkoa dela ditugun **baliabideak birmoldatu eta koordinatzea, osasun sistemaren erdigunean pertsona dagoen eredu batera iritsi arte**. Etengabeko arreta integrala sustatu behar da eta profesional talde batek kudeatu behar du asistentzia eta zainketa prozesu osoan zehar.

Pertsonak beti izan behar du osasun sistemaren erdigunea

Ezin da ahaztu, herritarren osasunaren helburuak bete eta garatzeko orduan erizainok dugun paper garrantzitsua. Izan ere, Erizaintzaren Nazioarteko Kontseiluaren (ENK) arabera, erizainak "pertsona osasuntsu eta gaixoei laguntzeko prestakuntza duten profesionalak dira, horien osasunean, osatze prozesuan edota heriotza baketsuan laguntzeko daudenak".

Osasunaren promozio eta gaixotasunaren prebentzioaren politiken garapenari esker, balizko patologiak saihestu edo murrizteaz gain, epe ertain eta luzean, sistemak aurreztu egingo du eta pertsonen bizi-kalitatean hobetze nabarmena nabarituko da.

Ezaugarri holistiko eta integratzaileak dituen formazioa jaso dugu, taldean lan egiteko gaitasun handia dugu, lantoki bakoitzaren barne funtzionamendua ondo ezagutzen dugu, beste zerbitzu eta kategoria profesional batzuekin harremana dugu... Horregatik guztiagatik, **Osasun Sistemaren kudeaketaren aldaketan liderrak izateko** profesional egokienak gara.

ZER EGITEN DUGU PERTSONEN ALDE?

Eredu praktikoak

Erizainok, **pertsonak haien bizitza-ziklo osoan zehar zaintzen ditugu**.

Gaixotasun edo osasun galera egoeretan, zainketa eta artatze jarduera ezberdinak betetzen ditugu ondorengo helburuekin: osasuna berreskuratu, zailtasunak saihestu eta, ahal den neurrian, pertsona ohiko bizimodura bueltatzea.

Gainera, funtsezko lana betetzen dugu **osasuna sustatu eta mantentzeko eta gaixotasunak prebenitzeko** orduan.

Ondoren, pertsonei lotutako egoera eta arazoetan erizainok betetzen ditugun lan ezberdinen eredu batzuk aipatzen dira:

JAIO AURRETIK

- Emakumea artatu haurdunaldi, erditze eta puerperio bitartean
- Osasun heziketa haurdun dagoen emakumearentzat
- Arrisku handiko haurdunaldien identifikazioa
- Edoskitze naturalaren sustapena

HAURTZAROAN ETA NERABEZAROAN

- Edoskitzea eta horren ondorengo elikadurari buruzko aholkuak
- Istripuak saihestu eta bularreko haurraren bat-bateko heriotzaren sindromeari lotutako osasun heziketa
- Txertoak jarri eta horien jarraipena egin
- Umearen hazkundearen eta garapenaren balorazioa
- Gerta daitezkeen osasun arazoen detekzioa, miaketa fisikoaren zein detekzio goiztiarreko tekniken bitartez, adibidez, gaixotasun metabolikoen edo gortasun kasuetan
- Tratu txarren arrisku faktoreen identifikazioa
- Bizimodu osasungarriari buruzko aholkularitza (higienea, ariketa fisikoak, atsedena, adikzio edo arrisku jarrerak saihestu)
- Jarrerari lotutako arazoen eta familiarekiko komunikazio zailtasunen hautematea
- Elikadurari lotutako gorabeheren prebentzioa eta tratamendua

HELDUTASUNEAN

- Emakumearen ugalketa-osasuna: orientabidea eta familia plangintza
- Haurdunaldia, erditzea eta erditze osteko kontrola
- Arreta menopausian zehar
- Genero indarkeriaren prebentzioa eta detekzioa
- Gaixotasun kardiobaskular, diabetes, minbizi eta bestelako osasun arazoen prebentzioa, hautematea eta kontrola
- Adikzioen prebentzioa eta tratamendua
- Loari lotutako gorabeherak
- Lan osasuna
- Osasun mentaleko arazoak (Alzheimer eta beste dementzia batzuk)
- Esku-hartzea dolu egoeretan
- Zainketa aringarriak
- Kirurgia txikiak
- Ospitalizazio eremu eta zerbitzu diagnostiko guztietan parte-hartzea

ADINEKO PERTSONAK

- Osasun azterketak adineko pertsonen arazoak eta arriskuak hautemateko (isolamendua, erorikoak, etab.)
- Adinekoa, zaintzailea eta familiari bideratutako osasun heziketa (higienea, elikadura, medikazioaren kontrola)
- Norbere zaintzaren eta zahartze aktiboaren sustapena
- Txertoak
- Gaixotasun kronikoen kontrola
- Mendekotasuna duten pertsonei eta paziente pluripatologikoei zuzendutako zainketak

ERIZAINTZAREN GAKOAK

1	**Lau urteko unibertsitate prestakuntza**, gehi beste urte bi espezializaziorako. **Master eta Doktoretza** ikasketak egiteko aukera dago.
2	**Pertsonen osasunaren zainketan ardura zuzena** duten profesionalak dira erizainak. Erabateko autonomia profesionala eta zientifikoa dute.
3	Pertsonen osasunari buruzko **ikuspegi bateratua eta integrala** erabiltzen du erizainak. Norbanakoa bere osotasunean ikusten du.
4	Osasun lanbideen taldean **profesional autonomoak dira** eta gainerako osasun langileekin modu koordinatuan lan egiten dute.
5	Osasun sisteman, **herritarrengandik gertuen dagoen lanbidea da** erizaintza eta horri esker bizitza ziklo osoan parte hartzeko aukera du, baita gaixotasuna agertu baino lehen ere, osasunari lotutako arazoak detektatzeko duen gaitasuna eta osasunaren sustapenean egiten duen lanagatik.

6	Baliabideen eta bitarteko materialen kudeaketaren arduradunak diren heinean, horien erabilera optimizatzen du gastua arrazionalizatzeko helburuarekin. Horrela, erizainek **Osasun Sistema mantentzen eta hobetzen** lagundu egiten dute.
7	Erizaintzaren jardunaren **ebidentzia zientifikoan oinarritutako ikerketak** egiten dituzte erizainek. Ikerkuntzak arreta sanitarioaren eta zainketen hobekuntzan laguntzen du.
8	Erizainek aktiboki parte hartzen dute **berrikuntza sanitarioan**.
9	Herritarrek **behar dituzten zainketak** hoberen identifikatzen duen lanbidea da.
10	Erizainek **osasun zentroetan eta bestelako gizarte-esparru ugarietan** artatzen dituzte pertsonak (ikastetxeak, zentro soziosanitarioak, etab.).

ERIZAINTZAREN ESTEREOTIPOAK ETA ERREALITATEAK



ESTEREOTIPOAK	ERREALITATEA
Erizainek bokazioagatik baino ez dute lan egiten	Erizainak profesional sanitario kualifikatuak dira
Erizainek ez dute unibertsitatean ikasten	Erizainek lau urteko unibertsitate karrera bat ikasten dute, gehi bi urteko espezializazioa
Erizainei OLT edo praktikanteak ere deitzen zaie	Gaur egun, eta hamarkadaz geroztik, erizain bezala izendatzen dira soilik
Erizainak medikuaren menpe daude	Erizainek modu autonomoan lan egiten dute, beste profesionalekin elkarlanean, medikua barne
Erizainek ez dute erabakirik hartzen eta medikuek agindutako tratamenduak egiten dituzte	Erizainek herritarren osasuna mantendu eta hobetzeko beharrezkoak diren zainketak erabaki, zuzendu eta ematen dituzte. Erabateko autonomia dute haien eskumenetan
Erizainek ospitaleetan eta osasun zentroetan lan egiten dute soilik	Erizainek, gainera, beste hainbat esparrutan egiten dute lan. Adibidez: zentro soziosanitarioetan, etxeetan, ikastetxeetan, enpresetan, armadan, erakunde publiko eta pribatuetan
Erizainek gaixoak baino ez dituzte artatzen	Erizainak osasun-heziketan, prebentzioan, ikerkuntzan, etorkizuneko profesionalen formakuntzan eta eremu ezberdinetako giza zein materialen baliabideetan aritzen dira
Erizaintza emakumeen lanbidea da soilik	Kolektiboaren %20 inguru gizonezkoek osatzen dute

ERIZAINTZA KOMUNIKABIDEETAN

Orokorrean, lanbidearen irudi desitxuratua ematen da. Izan ere, irudi horrek ez du inola ere bat egiten erizaintzaren gaur egungo errealitatearekin, alegia, bere funtzioekin, gaitasun zientifikoarekin, konpetentziekin ezta gizartearen osasunaren alde egiten duenarekin ere.

Oraindik, ez da komunikabideek Erizaintzari buruz hedatzen duten irudiari buruzko ikerketa orokor eta sistematikorik egin.

Hala ere, gizarteari urteetan zehar eman zaion irudi okerrari buruzko ideiarekin bat egiten duten zenbait lan eta artikulu argitaratu dira.

ERIZAINTZAREN OHIKO IRUDIA KOMUNIKABIDEETAN

Ez zaio identitate propiorik ematen eta bere lana beste profesionalen artean desagertu egiten da (laguntzaileak, teknikoak, jagoleak...)

Zaintzaile baten irudia ematen da, medikuaren menpe dagoena eta bere irizpide propiorik edo autonomia profesionalik ez duena

Zaharkiturik dauden izendapenak erabiltzen dira, praktikante edo OLT bezalakoak

Lanbideari lotutako estereotipoetan oinarritutako irudiak eta jarrerak erabiltzen dira (ama maitekorra, emakume "sexy" eta adeitsua...)

Ez da bere unibertsitateko prestakuntza ezagutzen

Eguneroko lanean konpetentzia eta funtzio espezifikoak betetzen ez dituztela dirudi

HIZTEGI PRAKTIKOA

Erizainen benetako irudia

ERIZAINTZAKO LAGUNTZAILEA

Ez da erizain bat. Langile hau Erdi Mailako Lanbide Heziketako prestakuntza duen kolektibo sanitarioko profesionala da eta pazienteari zainketa osagarriak emateko ardura du. Orokorrean, delegazioz aritzen da bere lan esparruko baldintza sanitarioetan, erizaina eta medikuaren gainbegiradapean.

BAEE

Barneko Erizain Egoiliarrak (BAEE), unibertsitate ikasketak amaitu eta sarrera-proba gainditu ondoren, Erizaintzako espezialitate bat ikasten du osasun zentroetako egoiliar sistemaren bitartez, beste lanbide batzuk egiten duten moduan (medikuak, psikologoak, farmazialariak...).

ERIZAINA

Lanbide Sanitarioen Antolamenduaren Legearen arabera, erizainak Erizaintzako zainketak zuzendu, ebaluatu eta eman egiten dituzten profesionalak dira. Zainketa horiek osasuna sustatu, mantendu eta berreskuratzeko helburua dute. Halaber, gaixotasunak eta desgaitasunak saihesten dituzten profesionalak dira.

Era berean, lanbide-prestakuntzari buruzko 2013/55/EB Zuzentarauak, erizaintzako diagnostikoa erizainen eskumenen artean aitortzen du.

Azken finean, Erizaintza herritarren osasuna zaintzeaz arduratzen da, haien bizitzaren etapa guztietan. Gainera, pertsonaren ikuspegi integrala du Erizaintzak.

ESPEZIALITATEAK

Gaur egun, Espainiako Estatuan, erizaintzako zazpi espezialitate daude araututa: Erizaintza Obstetriko-Ginekologikoa (Emagina), Osasun Mentaleko Erizaintza, Erizaintza Geriatrikoa, Laneko Erizaintza, Zainketa Mediko-Kirurgikoetako Erizaintza, Familia eta Komunitateko Erizaintza eta Erizaintza Pediatrikoa.

- **Emagina**
  Emakumearen osasun sexuala, ugalketakoa eta amaren osasunari lotutako zainketa integralak ematen dituen erizain espezialista da. Alderdi prebentiboan eta osasunaren sustapenean zein berreskuratzean aritzen da. Era berean, emaginak amak artatzen ditu ondorengo egoeretan: haurdunaldi, erditze eta puerperio normalaren diagnostikoan, kontrolean eta asistentzian. Osasun oneko jaioberriak ere artatzen ditu.

- **Erizain Pediatrikoa**
  Osasun arretako maila guztietan, haurtzaroan eta nerabezaroan zehar zainketak ematen dituen erizain espezialista da. Zainketa horien artean, osasuntsu zein gaixo dauden jaioberrien, haurren eta nerabeen osasunaren sustapena, gaixotasunaren prebentzioa eta asistentzia aurkitzen dira.

- **Erizain Geriatrikoa**
  Adinekoak artatzen dituen erizain espezialista da. Haien bizitza kalitatea hobetzeko helburuarekin, talde horretara bideratutako zainketak irakatsi, gainbegiratu, ikertu eta zuzentzeko gaitasuna du. Gainera, aktiboki parte hartu behar du arreta soziosanitarioaren arloan.

- **Laneko Erizaina**
  Pertsonek lan arloan duten osasun egoera zaintzeaz arduratzen den erizain espezialista da. Ongizate fisiko, mentala eta soziala eta lan-ergonomiaren mailarik altuena lortzeko helburua du.
  Prebentzio lan garrantzitsua egiteaz gain, langilearen, lantokiaren eta eremu soziolaboralaren ezaugarri indibidualak kontuan hartzen ditu. Halaber, lanetik eratorritako patologiez arduratzen da.

- **Osasun Mentaleko Erizaina**
  Osasun mentaleko arazoren bat duten pertsonak zaintzen dituen erizain espezialista da. Bereziki, haien jarreraren alderdi afektiboak eta horiek gizarteratzean duten potentzialitatea lantzen ditu.

- **Familia eta Komunitateko Erizaina**
  Pertsonen autozainketa sustatzeko gaitasun, ohitura eta jarreren alde lan egiten duen erizain espezialista da. Lehen mailako arretan aritzen da eta komunitatearen gaixotasunak saihesteaz gain, osasunaren sustapen, babes, berreskuratze eta errehabilitazioaz arduratzen da.

- **Zainketa Mediko-Kirurgikoetako Erizaina**
  Bere garapenerako eta eskumenen definiziorako dauden zailtasunengatik, prestakuntza programa definitu gabe duen espezialitate bakarra da. Horregatik, egoiliar sistemako espezialisten prestakuntzan (BAEE) plazarik ez duen espezialitate bakarra da.

LAN-IBILBIDEA

SATSEren proposamena da, erizainen bizitza laboralean zehar, lan-baldintzak progresiboki hobetzeko. Hobekuntza horietarako, ondorengo faktoreak kontuan hartuko dira: antzinatasuna; txandakako edo gaueko lanaldietan aritutako urteak; edota zerbitzu arriskutsuetan lan egindako denbora.

LANALDIA

Pazienteari 24 orduko arreta iraunkorra eman ahal izateko, erizain askok txanda aldakorretan lan egin behar dute. Badaude ere finkoak diren beste txanda mota batzuk: goizekoak, arratsaldekoak eta gauekoak.

ERIZAINTZAKO PRESKRIPZIOA

Erizaintzako preskripzioak sendagai eta produktu sanitarioak errezetatzea ahalbidetzen die erizainei. Oraindik aldatzear dago erizaintzako preskripzioari buruzko 954/2015 Errege Dekretua. Medikuaren preskripzioa behar ez duten sendagaien eta produktu sanitarioen kasuan, erizainak modu autonomoan errezeta dezake. Medikuaren preskripzioa behar duten sendagaien kasuan, praktika kliniko eta asistentzialeko giden eta baliozkotutako protokoloen bitartez egin dezake.

TXANDARTEKOA

Txandaka aritzen diren zenbait unitatetan erizainek erabiltzen duten denbora da. Zerbitzuko informazio klinikoa edo gertatu diren gorabeherak edota pazienteei buruzko informazioa ematea da txandartekoaren helburua. Informazio hori txanda hasieran eta bukaeran ematen da. Gaur egun, txandartekoaren denbora ez da laneko denbora gisa nahikoa aitortzen eta horrek kalte egiten die profesionalei.

TERMINOLOGIA EGOKIA

Sistemako profesionalen errealitateari egokitutako terminologia erabiltzea ezinbestekoa da. Horren adibide argia da "Zentro Medikua" izendapenaren erabilera okerra, profesional ezberdinek (fisioterapeutak, erizainak, medikuak, logopedak, teknikoak, psikologoak, e. a.) euren lana egiten duten zentroei deitzeko erabiltzen dena. Horren ordez, modu egokiak **"Asistentzia zentroa" edota "Osasun zentroa"** izango lirateke.

Gauza bera gertatzen da profesionalen inguruan hitz egitean, "Mediku Taldea" izendapena erabiltzen denean. Izan ere, talde horretan titulazio ezberdinak dituzten profesionalak daude: **"Osasungintzako langileak" edo "Osasun arloko profesionalak".**

Egun, Erizaintzako profesionalen inguruan hitz egiteko erabiltzen den eta ezegokia den beste izendapen bat "gremioa" da. Egia da hitz hori lanbide berbera duten pertsona taldea izendatzeko erabiltzen dela, baina gure iritziz, artisau-lanbideekin dago lotuago. Gainera, gehienetan, estatutu eta ordenantza bereziak izaten dituzte, eta egitura mailakatua izaten dute.

Horregatik, uste dugu ez duela zentzurik izendapen hori erabiltzeak, Erizaintza bezalako kolektibo profesional baten inguruan hitz egiteko, lau urteko unibertsitate ikasketen ondoren, Osasun Sisteman bere funtzio eta eskumenak dituen lanbidea da, eta ez du gremio egiturarik.

"Kolektibo profesionala" edo **"erizaintza"** errealitatetik hurbilago daudela uste dugu.

SATSE, ERIZAINTZA SINDIKATUA

Erizaintzako profesionalek haien interesak defendatzen dituen erakunde sindikal profesional bakarra dute Espainiako Estatuan.

30 urte baino gehiagoko historiarekin, 115.000 Erizain eta Fisioterapeuta afiliatu baino gehiago dituen erakundea da SATSE Erizaintza Sindikatua.

Osasungintzan ordezkaritza gehiena duen sindikatua da eta Erizaintza eta Fisioterapiaren defentsa da bere xede nagusia, lanbidearena zein profesionalena.

SATSE Erizaintzaren ahotsa izan da negoziazio eta erabaki eremu guztietan. Erizaintza Sindikatuak profesionalen eskubideak bermatzearen alde lan egiten du. Era berean, profesionalen defentsaren alde aritzen da, ordezkaritza eta eurek behar duten guztia eskainiz (lan-aholkularitza, laguntza sindikala eta juridikoa, prestakuntza...).

SATSE Erizaintza Sindikatua

Kontaktua
Sindicato de Enfermería, SATSE. Sede Estatal
Cuesta de Santo Domingo, 6
28013, Madrid

Tel.: 915424410

Posta elektronikoa: comunicacion@satse.es
Facebook: http://www.facebook.com/sindicatoenfermeria
Twitter: @Sindicato_SATSE

SATSE Erizaintza Sindikatua